

Ordizian, **bi mila eta zortziko maiatzaren 29an** UDALBATZARRAK **OHIKO BILERA** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta.	EAJ	taldea
Miren Auzmendi Urkiola	EAJ	taldea
Iban Asenjo Garde	EA	taldea
Belén Maiza Urrestarazu	EA	taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea
Monica Marañon Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Mikel Leunda Senperena	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Iñigo Manrique Cía	PP	taldea

BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ	taldea
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE (PSOE)	taldea

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

INTERPRETARIA:

Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea.



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

3. puntuan etorri da Iban Asenjo jauna.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2008ko apirilaren 23an egindako Osoko Bilkurako akta onartu.
..... 3..orria
- 2.- Plenoak egiteko bilera gela aldatzea.
..... 4..orria
- 4.- Gudarien etorbidea eta Tximista arteko bidegorria egiteko urte anitzeko kreditua onartu.
..... 5..orria
- 6.- Goiekiren 2007ko ekitaldiari dagokion galera eta irabazien balantzea onartu eta berri ematea.
..... 10..orria
- 7.- Udalaren eta EEEren arteko lankidetzaren hitzarmena.
..... 10..orria
- 8.- Ordizia Lantzen SA Elkarteari agintzea AIU 22 San Juan interbentzio eremuko urbanizazio eta etxeak egiteko promozioa.
..... 11..orria

AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:

- 3.- Ohiko Plenoak egiteko ordua aldatzeko.
..... 4.orria
- 5.- Kreditu-transferentzien 2.espedientea.
..... 6.orria

GORABEHERAK

GALDE-ERREGUAK

- .- Aurkeztutako mozioak ez eztabaidatzeagatik kritika gobernu-taldeari.
..... 13. orria

ORDUTEGIA:

HASIERA: 8,00 etan

AMAIERA: 8,20etan



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

1.-2008ko apirilaren 23ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2008ko apirilaren 23ko ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Galparsoro anderea

Bilkuraren hasiera orduan gaizki jasota dagoela esan du, aurreko plenoko deialdia goizeko 8:00etarako baitzen eta ez 9:00etarako, ohiko moduan egiten den bezala.

Zuzendu egin da. Gainera, euskarazko aktako 4.puntuko bozketa zuzendu da, eta honako hau da: 9 aldeko boto eta 2 abstentzio.

Zuzenketa egin eta gero, akta bozkatzeari ekin zaio.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 3, EA 1, PSE-EE/PSOE 2, EB-Berdeak/Aralar 2, PP1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako akta onartutzat jo du aipatutako aldaketak egin ondoren.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:



2.- Bilkura gelaren aldaketa.

Alkate jaunak esan du hemendik aurrera eta udaletxea berritzeko obrak irauten duten bitartean, Osoko Bilkurak Gaztelekuan egingo direla, gaurko saioa egiten ari garen lokalean.

Jakinaren gainean geratu da Osoko Bilkura.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien hirugarren puntuaren berri eman du:

3.- Ohiko Plenoak egiteko ordua aldatzeko.

Lehenik eta behin, aurkeztutako proposamenaren presazko izaera jarri da bozketapean.

Presazko izaera onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Botazioa

Lehendakariak bozketapean jarri du aurkeztutako gaiaren presazko izaera.

Botazioa egin ondoren emaitza hauek izan dira:

Aldekoak: 10 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE(PSOE) 2, PP 1, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Ondorioz, Lehendakariak puntu honen presazko izaera onartutzat eman du.

Alkate jna.

Alkate jaunak esan du Korporazioaren antolaketa eta funtzionamendurako Osoko Bilkuran bilerak egiteko ordua goizeko 9:00etan jarri zirela, hileko azken ostegunetan.

Plenotara etortzeko hainbat zinegotzik bere lanorduekin bateraezintasuna dutenez, ordubete aurreratu da ohiko plenoak egiteko ordua, goizeko 9:00etan izan beharrean, goizeko 8:00etan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.



Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez da izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 10 (EAJ 3, PSE-EE/PSOE 2, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 2, PP 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien laugarren berri eman du:

4.- Gudarien etorbidea eta Tximista arteko bidegorria egiteko urte anitzeko kreditua onartu.

Proposamena

2006ko maiatzaren 25eko Osoko Bilkuran Agenda 21 Ekintza Plana onartu zen, mugikortasun iraunkorra sustatzea aurre ikusten duelarik bere baitan.

Udal Arkitekto Teknikoak Gudarien Etorbidea eta Tximista artean bidegorria egiteko proiektua idatzi du, 186.767,49 eurotako aurrekontua duena.

Aurrekontuan krediturik ez dagoenez eta obra guztia sartzeko behar hainbat diru ez dagoenez, urte anitzeko kreditu bat onartzeko premia agerian geratu da.

Apirilaren 25eko 383 zenbakidun Dekretu bidez, 40.000 euro 2008ko aurrekontuko 1.601.444.00.01 partidatik ordaintzeko kreditua onartu zen. Hori, urte anitzeko kreditua onartu ahal izateko nahitaezko baldintza da.

AKORDIO PROIEKTUA

“Gudarien Etorbidea eta Tximista arteko Bidegorria” obra, 186.767,49 eurotako aurrekontua duena, egiteko, 2008-2009 urte anitzeko kreditua onartzea. Horretarako, 40.000 eurotako ordaintzeko



kreditua dago eta 2009rako 146.767,49 eurotako konpromiso-kreditua onartzen da, 5.601.444.00.01 partidan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Asenjo jna.

Aurrekontuan aurreikusi gabeko obra dela esan du, hori onartuta eta gero sortu baita ideia.

Kontu-hartzailea

Esan du, gainera, obra egiteko urte anitzeko kredituarekin planteatu dela, nahiz eta obra egiteko urtebete baino gutxiago beharko den; behar den kreditua altua da eta urte anitzeko kredituak aukera hobea emango digula, hau da, gaurko ekitaldiko aurrekontuan partida bat jar dezakegu eta hurren urteko aurrekontuetan beste partida bat. Hala ere, esan du ez litzatekeela gaur egungo dinamika izan behar, ez baitago balizko horietarako pentsatuta urte anitzeko kreditoa.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (EAJ 3, PSE-EE/PSOE 2, EA 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 3 (EB-Berdeak/Aralar 2,PP1)

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bosgarren berri eman du:

5.- Kreditu-transferentzien 2.espedientea.

Lehenik eta behin, aurkeztutako proposamenaren presazko izaera jarri da bozketapean.

Presazko izaera onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Botazioa

Lehendakariak bozketapean jarri du aurkeztutako gaiaren presazko izaera.

Botazioa egin ondoren emaitza hauek izan dira:

Aldekoak: 10 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE(PSOE) 2, PP 1, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Ondorioz, Lehendakariak puntu honen presazko izaera onartutzat eman du.

Proposamena

2008rako onartutako aurrekontuan gabeziak antzeman dira daramagun urteko denboran honetan.

Batetik, Iparra-Hegoa laguntzetarako kredituak Gobernu Organoetara pasatzea komeni da, Alkatea baita diru horiek kudeatzeko arduraduna.

Bestetik, Hego Bialeko obrak bukatzeko eta Malkaskorainoko espaloieko lanak bukatzeko hasieran aurreikusitako 69.000 euro baino gehiago behar izan dira.

Beste gastu batzuk, berriz, atzera ezinak ziren, hala nola, Jubilatueneko igogailuaren konponketa eta tabernako sukaldea Osakidetzako arauetara egokitzea, eta Herritarren Arreta Bulegoa-Kontu-hartzailtza-Euskararen galdara mistoa jartzea.

Kreditu-igoera horiek finantzatzeko Gaztelekua egokitzeko obretako soberakina dugu, eta D'Elikatuz museoaren funtzionamenduan kostu baxuagoa izen dela.

AKORDIO PROIEKTUA.

Kreditu-transferentzien 2.espedientea onartu, guztira 91.348,50.-euro. Guztira 269.563,98.-euro eta honako laburpen honen arabera:



KREDITU-IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
212.313.81.01	Makina eta instalazioen mantenua	15.500,00
226.313.99.07	Iparra-Hegoa sentiberatze-ekintzak	6.000,00
481.111.00.01	Iparra-Hegoa transferentziak	170.000,00
	Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako	
481.313.99.03	programak	3.000,00
226.441.20.01	Isurketa-kanona eta iragazpen-kostua	3.000,00
601.511.00.02	Hego Bialeetik Malkasko zubirainoko espaloia	69.000,00
623.611.00.01	Mikrouhin-labea erosteko	60,00
623.611.00.02	Galdara misota jartzeko	2.432,01
625.611.00.01	Kontu-hartzailtzeko altzariak	113,40
421.711.00.01	Goimeni ekarpena	458,57
	IGOERAK GUZTIRA	269.563,98

FINANTZIAZIOA

KREDITU-JAITSIERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
481.313.99.01.2007	Iparra-Hegoa transferentziak	82.000,00
480.313.99.01	Etxez etxeko laguntza	13.756,22
481.313.99.01	Iparra-Hegoa transferentziak	94.000,00
481.313.99.02	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei transferentziak	600,00
622.469.10.01.2006	Gaztelekua egokitzea	69.207,76
226.751.00.06	D'elikatuzeko ekintzak	10.000,00
	JAITSIERAK GUZTIRA	269.563,98

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez da izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:



Aldekoak: 10 (EAJ 3, PSE-EE/PSOE 2, EA 2, PP1, EB-Berdeak/Aralar 2)
Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien seigarren berri eman du:

6.- Goiekiren 2007ko ekitaldiari dagokion galera eta irabazien balantzea onartu eta berri ematea.

Eztabaida

GOIEKI SAK aurkeztutako auditoretza-txostenaren berri eman da, 2007ko ekitaldiko urteko kontuei dagokiona.

Aldi berean, elkarteko Ohiko Batzar Nagusiaren berri eman da, 2008ko maiatzaren 24an egindakoa, Memoria, Balantzea eta Galera eta Irabaizen Kontua onartu zenekoa.

2008ko maiatzaren 21eko Plenorako Gaien Batzordearen oniritziarekin, honako hau onartzeko proposamena egin da

AKORDIO PROIEKTUA

Maiatzaren 24an egindako Ohiko Batzar Nagusian onatutakoaren berri ematen da Osoko Bilkurari Goieki SAREN 2007ko ekitaldiaren Memoria, Balantzea eta Galera eta Irabaizen Kontua onartu zenekoa.

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

Goieki SAREN Akzionisten Batzorde Nagusian kontu horiek onartu direla esan du, 2008ko maiatzaren 24an. Horren berri emango zaio Udalbatzari.

Udala jakinaren gainean dago.



Ondoren, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du .

7.- Udalaren eta EEEn arteko lankidetzaren hitzarmena.

Proposamena

Europar Batasunak Energia Adimentsua- Europa 2003-2006 izeneko programaren baitan, ildo estrategikoak finkatu ditu, helburu hauekin: horniduraren segurtasuna, lehiakortasuna eta ingurumenaren babesa.

Estatuko Legediak energia berriztagarriak sustatzeko plan bat aurreikusten du, 2010. urtean energia-eskari guztiaren ehuneko 12 gutxienez, energia iturri berriztagarrien bidez ase edo betetzea helburu duena.

Udalek, beste administrazio guztiek bezala, energia kontsumitzaile handiak diren neurrian, energia kontsumoaren kontrolean eta energia erabili, garraiatu eta eraldatzeak ingurumenean dakarren eragina murrizten eredu izan behar dute.

Ordiziako Udalak energia-eraginkortasun eta energia berriztagarrien alorrean aurrera egiteko, Energiaren Euskal Erakundearekin lankidetzaren hitzarmena sinatzea komenigarria dela ikusten du, informazio trukaketa eta Udalerriaren interesaren alde egokitzat jotzen diren ekintzak elkarrekin sustatzeko helburua duena.

Hitzarmena sinatzearekin udalak bertako instalakuntzei buruzko informazioa EEEn emateko konpromezua hartzen du eta EEEn udalerrian egin litezkeen jardueri buruzko txostena (energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriari buruzkoa) egitekoa.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzordea eratuko da, alde bakoitzeko bina ordezkari izendatuko direlarik. Udalaren ordezkariak Iban Asenjo Garde jn. eta Jose Miguel Santamaria jn. izango dira.

2008ko apirilaren 23ko Zerbitzuak eta Agenda 21ari buruzko Delegazioak eta 2008ko maiatzaren 21eko Osoko Bilkurarako Gai Arrunten Batzordeak onartu ondoren, proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Ordiziako Udala eta Energiaren Euskal Erakundearen arteko lankidetzaren hitzarmen orokorra sinatzea.

2.- Alkateari lankidetzaren hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

3.- Jarraipen Batzordeko kide izendatzea Iban Asenjo Garde jn., Zerbitzu eta Agenda 21aren zinegotzi-delegatua eta Jose Miguel Santamaria jn., Alkatea.



Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

Hitzarmenaren proposamenaren berri eman du, EEerekin (Energiaren Euskal Erakundea) lankidetzan aritze adela helburua, efizientzia energetikoa hobetzeko.

Galparsoro anderea

Proposamenaren aldeko botoa emango dutela esan du, izan ere, bere garaian bere taldeak aurkeztutako emendakin batean, energia aurreztu eta efizientzian hobetzeko neurriak hartzea aurreikusten zuen.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 10 (EAJ 3, PSE-EE/PSOE 2, EA 2, PP1, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien seigarren berri eman du:

8.- Ordizia Lantzen SA Elkarteari agintzea AIU 22 San Juan interbentzio eremuko urbanizazio eta etxeak egiteko promozioa.

Proposamena

Alkatearen 384.dekretu bidez, 2008ko apirilaren 23koa, behin betiko onartu da AIU 22-San Juan interbentzio eremuko urbanizazio-proiektua, guztira 8.720.663 euro gehi BEZ.



Ordizia Lantzen SA elkarteak San Juan eremuko urbanizazio eta etxebizitzaren garapena bultzatzea komeni da.

2008ko maiatzaren 21eko Plenorako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin

AKORDIO PROIEKTUA.

*** Ordiziako Udalak agintzen dio Ordizia Lantzen SA udal elkarteari Udalari dagozkion urbanizazio eta etxebizitzak garatzeko promozioa, AIU 22-San Jaun interbentzio eremua birpartzelatzeko proiektuaren arabera.**

*** Kapitala handituta, Ordizia Lantzen SArri emango dio Udalak birpartzelazio-proiektuak emandako bere titularitateko lur-zatiak, bai emandakoetatik, baita derrigorrez eta doan eman beharreko %10aren lagapenetik ateratzen direnak ere.**

*** Urbanizatzeko obrak eta AIU 22 interbentzio eremuko etxeak egiteko lurraren jabeek eman beharreko kuotekin finantzatu da, birpartzelazio-proiektuan esandako portzentajearen, baita egiten dituen etxeen salmentan ateratako produktuarekin ere, baina diruzaintzako arazoetarako kreditu zubien beharra ere aurreikusi da.**

*** Ordizia Lantzen SA enpresak kudeaketaren agindua onartu duelarik, hori izango da obrak kontratatuko dituen eta, beraz, bere izenean bidaliko dituzten fakturak.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez da izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiaren amaitu ondoren eta jendearen parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 10 (EAJ 3, PSE-EE/PSOE 2, EA 2, PP1, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0



Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartuzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien seigarren berri eman du:

9.- Galde-eskaria.

Mikel Leundak berriro kritikatu du gobernu-taldearen jokaera, hurrengo Osoko Bilkurarako bere taldeak aurkeztutako mozioak ez sartzea, alegia.

Martxoan 2 mozio aurkeztu zituztela esan du. Bata, Saharari buruzkoa eta abortuaren despenalizazioaren gainekoa bestea.

Apirilean beste mozio bat aurkeztu zuen homofoboaren gainekoa. Horietako bat bera ere ez dela Osoko Bilkuran aztertu.

Eman zaizkion erantzunak ez direla justifikazio serioak, aitzakiak baizik. Beti erantzuten zaie ez direla Ordiziari eragiten dieten mozioak edo gaiak, baina hala ere, Osoko Bilkuran aztertu direla gaiak, hala nola, ETaren atentatua Elgoibarren, ez dagokiola zuzenean Ordiziari, eta Ordiziarekin zerikusia dutenak, berriz, Mikel Korta bizilagunaren atxiloketa, ez direla plenoan eztabaidatu.

Gobernu-taldearen gustuko diren mozioak bakarrik aztertzen direla uste duela.

Gai batzuk unibertsalak direla uste du, hala nola, homofobia, eta Ordiziako Udalak duen jarrera azaldu beharko litzatekeela.

Berriro dio ez direla oso azkarrak izango, baina ez direla tontoak.

Egia entzutea bakarrik eskatzen dutela. Hari beretik segituko dela uste dutela, baina ez dela batere demokratikoa.

Alkate jaunak esan dio plenoan aztertzen ez diren gai edo mozioak Gai Arrunten Batzordean (asteazkenetan) azterzea erabaki dela eta, gainera, EB/Berdeak/Aralar taldeak aurkeztutako azken mozioak denbora faltagatik ez direla sartu.

Jende artetik pertsona batek esan du amnistiaren gaineko mozioa aurkeztu dutela eta galdetu du ea asteazkeneko bilkurara joateko moduan izango diren.



Baietz erantzun zaio.



Eta beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak bukatutzat eman du bilera eta nik, Behin-behineko Idazkariak, bertan esandakoa honako honetan jaso eta ziurtatu egin dut.

